

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **2008/31/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko martxoaren 11koa, biozidak merkaturatzeari buruzko 98/8/EE Zuzentaraua aldatzen duena, Batzordearen betearazte-eskumenei dagokienez**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/31/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2008, que modifica la Directiva 98/8/CE relativa a la comercialización de biocidas, por lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala*, L 81/57, 2008/3/20koa)

2008/31/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2008ko martxoaren 11koa,

**biozidak merkaturatzeari buruzko 98/8/EE Zuzentaraua aldatzen duena, Batzordearen betearazte-
eskumenei dagokienez**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 95. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eta, Tratatuaren 251. artikulua ⁽²⁾ araututako prozedura betetz, alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) 98/8/EE Zuzentarauak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak ⁽³⁾, xedatzen du zein diren 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiaren arabera onartu beharreko neurriak. 1999/468/EE Erabakiak ⁽⁴⁾ ezartzen du zer prozedura bete behar dituen Batzordeak berari dagozkion betearazte-eskumenak baliatzeko.

(2) 2006/512/EE Erabakiak 1999/468/EE Erabakia aldatu zuen. 2006/512/EE Erabakian, Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera hartutako oinarritzko egintza batean funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko zer neurri orokor hartu behar diren kontrolatzen duen arautze-prozedura ezarri zen, eta aukera ematen zuen elementu horietako batzuk ezabatuz, edo egintza funtsezkoak ez diren beste elementu batzuekin osatzeko.

(3) 2006/512/EE Erabakiari dagokionez, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen ⁽⁵⁾ Adierazpena kontuan hartuta, Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki hartu eta indarrean dauden egintzetan kontrolatzen duen arautze-prozedura aplikatu ahal izateko, egintza horiek aplikatu beharrekoak diren prozeduren arabera egokitu behar dira.

(4) Batzordeari eskumenak ematea komeni da, ikerketa eta garapenerako baldintza komunak ezar ditzan, eranskinak molda ditzan eta berrikuspen-programak abiarazi ditzan. Neurri horiek orokorrak eta 98/8/EE Zuzentaruaren funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatu daitezke), 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrolatzen duen arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(5) Horrenbestez, aipatutako 98/8/EE Zuzentaruak aldatu egin behar da.

(6) 98/8/EE Zuzentaruaren egin beharreko aldaketak teknikoak direnez eta komitearen prozeduran soilik eragiten dutenez, estatu kideek ez dituzte, ezinbestez, legedian sartu behar. Horrenbestez, ez da beharrezkoa horretarako xedapenik ezartzea.

(1) EO C 161, 2007.07.13koa, 45. or.

(2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko azaroaren 14koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluak hartutako Erabakia, 2008ko martxoaren 3koa.

(3) L 123 EO, 1998.04.24koa, 1. or. Zuzentaru hori Batzordearen 2008/16/EE Zuzentarauak aldatu zuen azkenekoz (L 42 EO, 2008.02.16koa, 48. or.).

(4) L 184 EO, 1999.07.17koa, 23. or. Erabaki hori honek aldatu zuen: 2006/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006.07.22koa, 11 or.).

(5) C 255 EO, 2006.10.21ekoa, 1. or.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

98/8/EE Zuzentarauak aldaketa hauek izango ditu:

1) 10. artikuluan, 5. paragrafoa honela aldatuko da:

a) i) tartekian, hirugarren lerrokadaren ordez, testu hau jarriko da:

«Batzordeak 27. artikuluari jarraiki hartu behar dituen erabakiak badira, ebaluazioa 11. artikuluan, 2. paragrafoan ezartzen denaren arabera hedatuko da. Erabaki horren helburua Zuzentaru honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea izango da, eta 28. artikuluko 4. paragrafoan ezartzen den kontrol-dun betearazte-prozeduraren arabera hartuko da»;

b) ii) tartekian, 5). puntuaren ordez, testu hau jarriko da:

«5) I, IA edo IB eranskinetan sustantzia bat sartzeko balio duten edo balio izan duten ebaluazioetan, datu osoko espedienteak 28. artikuluko lehenengo paragrafoan adierazten den komiteari helarazi behar zaizkio»

2) 11. artikuluan, 4. paragrafoaren ordez, testu hau jarriko da:

«4. Ebaluazioa jasotzen duenean, justifikatu gabeko atzerapenik izan gabe, Batzordeak proposamen bat prestatuko du 27. artikuluari jarraiki, 2. paragrafoan aipatzen den ebaluazioa jaso eta, beranduenera, 12 hilabete igarota erabaki bat har dadin. Erabaki horren helburua Zuzentaru honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea izango da, eta 28. artikuluan, 4. paragrafoan ezartzen den kontrol-dun betearazte-prozeduraren arabera hartuko da.».

3) 16. artikuluan, 2. paragrafoaren ordez, testu hau jarriko da:

«2. Zuzentaru hau onartu ondoren, Batzordeak 10 urteko lan-programa bat abiaraziko du, 34. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen den egunez dagoeneko merkaturatuta dauden sustantzia aktibo guztien ikerketa sistematiko bat egiteko. Hori da, 2. artikuluan, 2. paragrafoan, c) eta d) idatz-zatietan zehaztutakoaz aparteko helburuak dituzten bioziden sustantzia aktiboen kasua. Programa arauzko hainbat egintzaren bitartez ezarri eta aplikatuko da. Modu berean finkatuko dira sustantzia aktiboak ebaluatzeko lehentasunak, eta baita dagokion egutegia ere. Egintza horien helburua Zuzentaru honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea izango da (osatu ere egin dezakete), eta 28. artikuluan, 4. paragrafoan, agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira. Lan-programa amaitu baino, gutxienez, bi urte lehenago, Batzordeak txosten bat aurkeztuko dio Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, programak izan dituen aurrerapenak azaltzeko.

Hamar urteko epe horretan zehar eta 34. artikuluko lehenengo paragrafoan aipatzen den egunetik hasita, sustantzia aktibo bat I, IA edo IB eranskinetan sartzeari erabaki ahal izango da, bai eta zer baldintzatan sartu behar den ere. Halaber, 10. artikuluko betekizunak betetzen ez diren kasuetan edo aurreikusitako epearen barruan eskatutako informazioa eta datuak aurkeztu ez badira, sustantzia aktibo hori I, IA edo IB eranskinetan ez sartzeari erabaki daiteke. Zuzentaru honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (osatu ere egin dezakete) 28. artikuluan, 4. paragrafoan, agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira».

4) 17. artikuluan, 5. paragrafoaren ordez, testu hau jarriko da:

«5. Artikulu hau aplikatu ahal izateko baterako irizpideak erabakiko dira, eta bereziki, alor hauek: esperimentuetan aska daitezkeen sustantzia aktiboen edo bioziden gehieneko kopurua, eta 2. paragrafoaren arabera ebaluazioa gauzatu ahal izateko aurkeztu beharko diren gutxienezko datuak. Zuzentaru honetan funtsezkoak ez diren

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

elementuak aldatzeko neurri horiek (osatu ere egin dezakete) 28. artikuluan, 4. paragrafoan, agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.».

5) 27. artikuluan, 2. paragrafoaren ordean, testu hau jarriko da:

«2. Behin alegazioak aurkezteko epea amaituta, Batzordeak erabakiaren proiektu bat prestatuko du 28. artikuluko 2. edo 4. paragrafoan ezartzen den prozedurari jarraiki, eta horretarako, elementu hauek hartuko dira oinarritzat:

- a) espedienteak ebaluatu dituen estatu kideak helarazitako agiriak;
- b) komite zientifiko aholku-emaileen irizpide guztiak;
- c) beste estatu kide batzuek edota eskatzaileek egindako oharra, eta
- d) egoki den beste edozein informazio.».

6) 28. artikulua honela aldatuko da:

a) 1. paragrafoaren ordean, testu hau jarriko da:

«1. Batzordeak bioziden komite iraunkor baten laguntza izango du.»;

b) 2. paragrafoaren ordean, testu hau jarriko da:

«2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 4. eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da. 1999/468/EE Erabakiko 4. artikuluan, 3. paragrafoan jasotako epea hiru hilabetekoa izango da»;

c) 3. paragrafoaren ordean, testu hau jarriko da:

«3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan xedatutakoa ere betez. 1999/468/EE Erabakiko 5. artikuluan, 6. paragrafoan jasotako epea hiru hilabetekoa izango da»;

d) 4. paragrafo hau erantsiko da:

«4. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 *bis* artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da».

7) 29. artikulua ordez, testu hau jarriko da:

«29. artikulua

Aurrerapen teknikora egokitzea

Beharrezkoak diren neurriak hartuko dira IIA, IIB, IIIA, IIIB, IVA eta IVB eranskinak eta V. eranskinean ageri diren produktu-moten deskribapenak aurrerapen teknikora egokitzeko eta produktu-mota horietako bakoitzarentzat eskatzen diren datuak zehazteko. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (osatu ere egin dezakete) 28. artikuluan, 4. paragrafoan, agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.».

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. artikulua

Indarrean sartzea

Zuzentarau hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

3. artikulua

Hartzaileak

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon emana, 2008ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren izenean, H.-G. PÖTTERING presidentea

Kontseiluaren izenean, J. LENARČIČ presidentea.